

## *Erresumena*

### **1.- Ikastetxearen aurkezpena eta praktika onaren deskribapena**

Elizalde Herri Eskola Oiartzunen dago eta Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza hartzen ditu beregan. Manuel Lekuona hiribidean dago kokatua, herriko erdigunean. Guztira 670 ikasle ditu. Guraso Elkarteak eskolaren sorreratik ari da lanean. Une honetan batzordeetan lanean 15 guraso dabilta. Ikastetxeak harreman estua du Guraso Elkartearekin eta hark proposatutako jarduera guztietan laguntzen du.

Guraso Elkartek beti azaldu du kezka antolatzen dituen jardueren inguruan, eskola komunitatearen partaidetza eta herriko kultura markoan integrazio maila direla-eta. Batetik, ikusi da ikasleak Bigarren Hezkuntzara pasatzen direnean eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzea uzten dutela. Hori hobetu nahian ari gara. Euskal Dantzan, adibidez, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleek parte hartzen dute. Aurten Elizalde Dantza Taldea sortzea ekarri du honek. Helburu jakina duten jardueretan parte hartzeak ikaslegoa motibatu egiten du. Bestetik, inklusiboak deitzen diegun jarduerak indartzeko kezka dugu, zeinetan hezkuntza komunitate osoak parte hartzen duen. Azkenik, herriko kultura markoan integrazio maila hobetu nahi dugu.

Honen aurrean, Guraso Elkarteak eta ikastetxea elkartu egin dira, aurrera eraman daitezkeen ekintzak zehaztu ahal izateko.

Aurreko guztia kontuan hartuta, eskolaz kanpoko ekintzak ezagutzera emango zituen jarduera aurkeztu zuen Guraso Elkarteak, hezkuntza komunitate osoa barne hartzen zuena eta herriko kultura markoan integratutakoa.

Proposatutako jarduera Karroxoaren desfilea izan zen, barnean zenbait jarduera hartzen zituen eta Oiartzunen duela 25 urtetik antolatzen den Ithoeten festan integratua. Festa hau herriko zenbait eragileek sustatzen dute.

Lau hilabeteko lanaren ondoren, 2013ko otsailaren 3an, 200 pertsonak baino gehiagok hartu zuten parte proposatutako jardueran: ikastetxek, Guraso Elkartek, gurasoek, ikaslegoak, eskolaz kanpoko ekintzetako begiraleek eta herriko elkarrek. Jarduerak arrakasta handia izan zuen eta parte hartzaileek nahi parte hartu ez zutenek oso ondo baloratu zuten. Ondorioz, jarduera berriro ere antolatu eta herriko kultura markoan mantentzeko asmoa sendotu zaigu.

Eskolatik kanpoko ospakizun batean jarduera inklusiboak eta eskolaz kanpokoak integratzea, beste eskoletarako ere baliagarria izan daiteke.

Zailena, halako jarduera egin ahal izateko, markoa identifikatzea da. Herrian jada ezaguna den festa izateak errazagoa egiten du jarduera nagusia zehaztea, eta ondorioz jarduera inklusiboak ere bai. Gainera, festa ezaguna izateak motibazioa errazten du, proiektua barneratzea eta bertako kide sentitzea ekartzen baititu. Horregatik da garrantzitsua lehen faseari behar den denbora ematea, proiektuak arrakasta izan dezan.

### **2.- Helburu nagusiak eta lan antolaketa**

Proiektuko helburu nagusiak hauek dira:

- Guraso Elkartetik antolatutako jarduerak sustatzea, balioskotzea eta ikusgarri egitea.
- Jardueraren inguruan eskola komunitate osoaren parteartzea sustatzea.

- Kolaborazio espazio berria sortzea, barruan hartuko dituen ikastetxea, Guraso Elkartea, gurasoak, ikasleak, eskolaz kanpoko begiraleak eta herriko elkartek.
- Herriko kultura markoan ikastetxearen parte hartzea handitzea.

### 3.- Lan antolaketaren garapena

Helburuok lortzeko lana 4 fasetan antolatu zen eta bukatu ondoren Ebaluazioa egin da.

#### 1. Helburuen definizioa, ideien sorrera eta aukeraketa

Fase honetako helburua: Helburuak kooperazioan definitzea, eta eskolaz kanpoko ekintzak eta inklusiboak ikusgarri egiteko markoa identifikatzea. Bukaera data: 2012 abendua

Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleekin, Guraso Elkarteko kideekin eta eskolaz kanpoko ekintzetako begiraleekin bilerak antolatu ziren. Bilerotan, era kooperatiboan bigarren mailako helburuak zehaztu ziren, eta ideiak sortu eta aukeratzeko saioak ere bai. Urria eta azaroko zenbait bileraren ondoren, pentsatu zen testuingurua herrian martxan zegoen festaren bat izan zitekeela. Festa honek eskola egutegiarekin bat etorri behar zuen. Hala, lhoteetan pentsatu zen, Oartzunen 25 urtetan antolatzen ari diren festan. Eragile desberdinak ari dira festa hau indartu nahian, izaera propioa eman nahirik. Egokia ikusten zen herriko beste eragileekin kolaborazioan aritzea, Guraso Elkartean ekimena aurrera eramateko. Markoa definitu ondoren, egokiena festan integratutako desfilea eginez parte hartzea izango zela pentsatu zen. Desfilean eskolaz kanpoko ekintzak eta inklusiboak integra daitezke, eta eskola komunitatearen parte hartze handia lortzeko gune egokia izan daiteke.

Ondoren desfilea tajutzen hasi ziren, jarduera inklusiboak nola garatu eta eskolaz kanpoko jarduerak desfilean nola egokitu zehaztuz. Desfilerako jantzi berezia behar zenez, erarik errazena, azkarrena, merkeena eta luzituena tailerrak antolatzea izan zen. Gainera txaranga osatzeko beharra ikusi zen. Bestetik gurasoen dantza taldea bazen, eta egin zena haien parte hartzea bultzatzea izan zen, horretarako entseguak antolatuz.

#### 2. Proiektua aurrera ateratzeko beharrezko jardueren garapena

Fase honen helburua: Eginbeharrak eta arduradunak zehaztu ziren eta plangintza egin, proiektua otsailaren 3an burutzeko. Bukaera data: 2013 urtarrila. Garatutako ekintzak ondorengoak izan ziren:

- Beste eragileekin komunikazioa eta parte hartzea bilatzea. Arduraduna: Guraso Elkarteko kide bat. Interesatzen zen eragilea lhote Taldea zen eta gure proiektua azaldu zitzaien. Plangintza: abendua. Emaita: positiboa, egitarauaren barruan sartuz.
- Arduradunei komunikatzea eta jarduera eta tailerren diseinua. Arduradunak: eskolaz kanpoko ekintzen begiraleak, irakasleak, Guraso Elkartea. Plangintza: urtarrila. Emaita: desfilerako jarduerak prestatuta.
- Eskola komunitateari jakinaraztea lhoteetan desfilea eginez parte hartzeko asmoa, parte hartzearen beharra eta proposatutako jarduerak. Arduraduna: guraso Elkartek ikastetxean duen espazioa, asteroko informazio orriaren bitartez. Plangintza: urtarrila. Emaita: 4 tailer berrien eta txarangaren sorrera.

#### 3. Proiektua burutzeko beharrezko jardueren garapena

**Eskolaz kanpoko jarduerak:**

- Antzerkia.
- Bertsolaritza.
- Euskal dantza.
- Trikitixa eta panderoa

#### Jarduera inklusiboak:

Jarduera berriak izaki, eta parte hartzaile desberdinentzat, jarduera bakoitzean jendea biltzeko estrategia desberdinak erabili ziren.

- Txaranga.
- Intxixu tailerra.
- Euskal Dantza tailerra, gurasoentzat.
- Intxixuen tailerra.
- Sorginen tailerra.
- Zaku jantzien tailerra.
- Karroxa



#### 4. Gauzatzea

Otsailaren 3an, igandea, desfilea honela ordena honetan gauzatu zen:

1. Trikitilariak
2. Karroxa
3. Intxixuak auzoetako ikurriñekin
4. Antzerkiko partaideak
5. Bertsolariak
6. Elizalde Dantza Taldea
7. Gurasoak
8. Ikasle eta irakasleak
9. Txaranga

#### 5. Ebaluazioa

Desfilean 200 pertsonak baino gehiagok parte hartu zuten. Hurrengo astean elkartu ziren Guraso Elkarteak eta LH eta DBH-ko zuzendaritzak. Tutoreek geletan jaso zuten ikasleen balorazioa. Guraso, begirale, irakasle eta tailerretako partaideen iritzia ere jaso zen, eta baita lhote Taldekoa ere. Denon aldetik balorazioa oso positiboa izan da. Datorren urtean berriz antolatzeke interesa azaldu dute denek, eta parte hartu ez dutenek ere datorren urtean parte hartzeko gogoia azaldu dute. Herrian ere era informalean iritziak jaso ziren eta oso ondo baloratua izan zen.

AMPA ELIZALDE

